



UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



## IZENBURUA:

Armairutik atera ginenekoa: testigantzetatik aurtengo praktiketara?

## EGILEA:

Aitor Unanue

## DATA:

2018/04/24

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



## Aurkibidea

|  |   |
|--|---|
| 1. Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz! .....              | 2 |
| 2. Armairutik atera ginenekoa. Testigantzak .....                | 4 |
| 3. Euskaraldia.....  | 6 |
| 4. Hamaika egun, hainbat gomendio eta 11 galdera-proposamen..... | 7 |




## 1. Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz!

2016ko urrian, 2.000 lasarteoriatar inguru hizkuntzaren armairutik atera ziren, “*Baietz 40 egun euskaraz*” erronkak bultzatuta. Ekintza horrek bere ikerketa izan zuen, eta ikerketa horren emaitzak, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak, “*Baietz 40 egun euskaraz! Ikerketaren emaitzak*” liburuan jaso genituen.

Erronka-aste bakoitzean bi saiotara joateko aukera ematen zitzaien ahobiziei, astea hasi aurretik eta astea bukatu berritan. Bigarren saioan, erabilerari buruzko bigarren galdetegiak gain, gogoeta-koaderno bat betetzea proposatzen genien, “*Ahoz aho, bizi-bizi*” izeneko. Lau alderdiren inguruan hausnartzeko eskatzen zitzaien:

- Kontaiozu hurrengo ahobiziarri bukatu berri duzun astebeteko esperientzia: sentipenak, zaporea, ikusi-ikasitakoa ...
- Nik, oztopo edo zailtasun honekin egin dut topo erronka-astean zehar. Agian me-rezi dizu kontuan izatea.
- Ustekabe eder bat ere izan dut, ahobizi izaten jarraitzeko kemena eman didana. Lagungarri gertatuko zaizulakoan ...
- Hurrengo batean, “*Baietz 40 egun euskaraz!*” bezalako erronka batean parte hartuko al zenuke? Zergatik?





305 ahobiziren testigantzak jaso genituen guztira, eta horietan oinarrituta egin zuen Pello Jauregik esperientziaren azterketa kualitatiboa.

Ahobiziengandik zuzenean jasotako testigantza horiek sekulako altxorra iruditu zitzaizkigun. Ezin genituen, besterik gabe, “bertan goxo” utzi. Nola edo hala, ahobiziei itzuli egin behar genizkiela sentitzen genuen. Izan ere, ahobizi edo belarriprest izateko erabakia hartzen duen herritarrari testigantza horietan jasotako ikasgaiak liburuan baino modu samurrago batean eskainiz gero, hurrengo ekimen batzuetarako tresna baliagarria izan zitezkeelakoan geunden. Ibilbidea borobildu beharra zegoen: ekintzatik ikerketara, eta ikerketatik (ikasitakoarekin) ekintzara.

## 2. Armairutik atera ginenekoa. Testigantzak.

Liburuko azterketa kualitatiboaren emaitzak ahobiziei modu samur eta arin batean itzuli nahiak liburuxka bat argitaratzera eraman gaitu: “*Armairutik atera ginenekoa. Testigantzak*”. Ez ditugu azterketa kualitatiboko alderdi guztiak jaso, baizik eta gure ustez, hurrengo ekimen batean ahobiziei eta belarriprestei hizkuntza ohiturak aldatzeko erabilgarri gerta dakizkiekeenak. Bi hauek izan ditugu kontuan:

- “5.4.3. Esperientziaren alderdi indartsuak”
- “5.4.4. Zailtasunak”





Hasierako esker-gutunez eta bukaerako gonbidapenez gain, hiru atal nagusi ditu liburuxkak:

1. Esperientziaren alderdi indartsuak
  - a. Gogo lokartua esnatu dit
  - b. Talde sentitu gara
  - c. Txaparen egitekoak
  - d. Konturatu naiz ...
  - e. Ze indarra ematen duen hizkuntzari eustekak!
  - f. Jo! Hasieran ... baina gero ...
  - g. ... Hemendik aurrera
2. Zailtasunak
  - a. Lagunak erdaraz eta nik euskaraz: posible ote?
  - b. Arroztasunetik harrotasunera
  - c. Ezezagunekiko harremana
  - d. Errespetua, edukazioa ... askatu beharreko korapiloa

Azpiatal horietako bakoitza hiru elementuz dago osatua. Lehenengoa, liburuko azpiatalaren izenburua, laburtuta (izenburu batzuk geuk asmatuak dira). Bigarrena, hainbat testigantza; eta hirugarrena, gogoetari buruzko ondorio moduko bat, ikasgai tankerakoa, gure artean “pilula soziolinguistikoa” deitu izan dioguna.





## 3. Euskaraldia

---

Euskaraldiak dakarkigun 11 eguneko erronka berriari begira jartzeak, ezinbestean, 2016ko esperientzia hura gogorarazi digu. Orduko hartan, erronka-aste bakoitzeko saioetan, zuzeneko harremana izan genuen ahobiziek. Eta arestian aipatu dudanez, esperientziari buruzko informazioa biltzeaz gain, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesua dinamizatzeko aukera eman zigun horrek. Orain, ordea, ez dugu ez ikerketarik ez zuzeneko harremanik erronkan zehar. Eta horrek, egia esateko, bertigo pixka bat ematen digu. Labur esateko, dinamizazioaren beharra sumatzen dugu, 11 egun horietan zehar ahobizi eta belarriprestak aktibatu eta motibatuko dituen zer edo zer, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuari kontzienteki ekiten lagunduko diena. Baina zer?

Bada, liburuxkaren hirugarren atalean dugu erantzuna:

### 3. Ahobizitzeko eta belarriprestatzeko gomendioak

Lehen aipatutako bi atal horietako ikasgaiei balio praktikoa eman nahian, ahobizi edo belarriprest izan nahi duen herritarrarentzat gomendio-sorta bat prestatzea erabaki dugu. Horixe izan da liburutik liburuxkara jauzi egin izanaren emaitza: lehenengo liburuan, ondoren (modu samurragoan) liburuxkan ... Baina soinean, zer eramango dute ahobizi eta belarriprestak 11 egun horietan soinean? Jakina, txapa. Eta ikerketan argi erakutsi da txaparen egitekoa: "Jende gehienarentzat txapa eramatea harrotasun, indar, ausardi eta babes emaile bihurtu da". Hedabideetatik egingo denak ere eragingo du, baita prestakuntza-saioek ere. Horrez gain, beste baliabideren bat eskainiko bagenie, egunerokoan lagunduko diena?

## 4. Hamaika egun, hainbat gomendio eta 11 galdera-proposamen

---

*"Ahobizia puntuz puntu"* eta *"Belarripresta puntuz puntu"* fitxak, diptiko batean aurkeztuak, izan daitezke bila gabiltzan baliabide hori, herritar parte-hartzaileei hartutako konpromisoa egunero gogoraraziko diena, erronka gauzatzeko hainbat jarraibide eskain ditzakeena, aldaketa prozesua errazago bideratzen lagunduko diena ...

Liburuxkan bildutako zortzi gomendioak (pilula soziolinguistikoak) fitxa didaktiko horietan daude jasoak. Ahobizitzeko eta belarriprestatzeko gomendio horiek oinarri, egun bakoitzeko galdera

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



edo proposamen bat egingo zaie parte-hartzaileei, zeinen helburua baita hizkuntza portaeraren gaineko hausnarketa bultzatzea, eta egoeraren arabera, emandako gomendioak aplikatzea. Dinamizazio horrek hizkuntza ohiturak aldatzeko behar den txinparta 11 egunetan zehar bizirik mantenduko duelakoan gaude.

Txapa jasotzera datozenean banatuko genieke fitxa, eta agian, dinamizazioa areagotzeko, whatsapp bana bidali ahal izango genieke, egun bakoitzerako gomendio eta proposamenarekin.